

Brassempouy-ko Andere famatua eta hainbat euskaltzalek etxeko murrutan duten Louis Lucien Bonapartek egin-dako euskalkien maparen aurrean, Manex Goienetxek hiru urteko lan erraldoia buruan duela argi da. Obra garrantzitsua da, XVI. mendetik

XIX.ra arteko Ipar Euskal Herriko historialariak ikertzen dituen. 'XVI. mendetik XIX. erainoko euskal historiografiaren analisisa' du titulua. Pabe-ko Unibertsitatean aurkeztu zuen, eta bere tesia Christian Desplat irakaslearen zuzendaritzapean egina da.

Goienetxe: «Herri honen nortasuna ikertzea izan dut kezka nagusia»

Manex Goienetxek Iparraldeko historiografiaz tesia aurkeztu du

L. ETXEZAHARRETA / BAIONA

XVI. eta XIX. mendeen tartea alabaina, liburuaren sorrera eta XX. mende berri eta joriaren artekoa da. Euskaldunek beren historiari begiratzean beren nortasuna zehazten eta ezagutzera ematen dute, hori zen lanaren aurrehipotesietariko bat. Dokumentuetara, iturrietara jotzea zientziaren ardatzetarik izanez gero, bide hori erabili du Goienetxek, zama handia bilduz. Jakin-gai asko da bere obran. Berdin, gai minbera den abertzaletasunarenean, berriro Iparraldeak herri nortasun eta jakintzan pauso nagusiak eman zituela nabaritu-tuko da askorentzat. Allande Oihenarten historiari buruzko lan aipamenek markatu duten 1992ko urtearen ondoren, Manex Goienetxek euskal historiari elikagai aberatsa eskaintzen digu.

EGUNKARIA.— Historiografiak euskaldunek beren buruaz daukaten ikuspegia azaltzen duela diozu.

MANEX GOIENETXE.— Gai hori hartu dut lehendabizi lan guti delako horren inguruan eginik Euskal Herrian. Britainian edo Languedoc aldean, aldiz, badira lan gehiago eginik. Historiaren idazteko moldeak ere agertzen du herri baten nortasuna, bere buruaz zer pentsatzen duen. Nahi bada jakin herri bat zer den, nolakoa den, historia nola egiten duen behar da ikertu ere. Ez dut erraiten dena horretan mugatzen dela. Baina herri baten mentalitatearen adierazgarri da.

EGUNKARIA.— Erran nahi du baita ere historian, zientzia horretan, jendea bazela urrats horren egiteko gai?

GOIENETXE.— Historigile hitzak erran nahi du bilatzen dugula edozein jende bere egoeraz zerbait adierazi nahi izan duena edo bere garaiaz zerbait idatzi duena. Hala nola Joanes Leizarragaren kasuan: literaturan ezaguna da Testamentu Berria itzuli duela. Baina ikertuko dugu historiografiaren aldetik ere zeren aitzinsolasean zerbait erraiten baitu orduko denboraz, orduko Nafarroaz, zer pentsatzen duen. Axular ere gero, elizako liburuaren aitzinsolasean, orduko jendea, orduko noblezia, elizgizon bat Etxauz goraiatzaren duena. Bada historiaren idazpen bat Etxauz familia «euskaldunen aitzindari» bezala emaiten duena eta «kan-

tabroaren» arketipoa erabiltzen du.

Aunitz izan dira historia idatzi dutenak. Lau mende hartu ditut, epe luzea. Nere kezka zen herri honen nortasunaren ikertzea. Denbora laburra hartuz ezin da ikertu. Epe luzeak du agertzen herri baten bilakaera. Erregimen Zahar garaian, XVIII. mendea arte, historiografian hiru idazle mota aurkitu ditut. Lehen denboran, XVI. mendearen bukaeran, XVII.aren hasieran, azaltzen da mugimendu bat, deitzen dudana 'Historiografia nabarrista'. Hegoaldeko irakurlegoarentzat, 'nabarrista' hitzak badu zentzu berezia, baina hemen ere baze- goen 'nabarrista mugimendu' bat. XVI. mendearen hasieran Nafarroa konkistatu zen eta Nafarroa Beherean erresuma berri bat eraikia izan zen. Hortik goiti, Nafarroako legezko errege eta erreginek beti salatu dute «Nafarroaren lapurtzea». Arazoa da nori lapurtu zitzaion. Badakigu 1549tik goiti, Nafarroako erregea Frantziakoa zela ere. Frantziakoek dute salatu lapurketa hori eta eskaera egin Gaztelari

Nafarroa Frantziako Koroarena zela. Horren inguruko mugimendua da: Lostal, Bordenave, Chapuis, Olhagarai historialariak.


Bigarren denbora, XVII. mendearen erditsuan da, Oihenarten denbora. Txapeldun bezala jarri behar da. Mendea historiografiaren aldetik oso pobrea izan da. Pirinioetako Itunagatik, mugimendua nabarrista desagertua zen. Mende pobrea salbuetsua bakanra Oihenart da. Honen inguruan kapitulu handi bat daukat, bera ere nabarrista delako baina pauso

▼
Oihenartek ez zuen erdigune erregearen inguruko historiografia, beste erdigune bat hartu zuen: 'baskonismoa'. Honen atzean da euskal nortasuna.



Manex Goienetxe, Baionako bere bulegoan.

L. ETXEZAHARRETA



koalitiboa eginarazten dio. Ordura arteko historiografia erregearen inguruan egiten zen. Oihenartek beste erdigune bat hartu zuen: 'baskonismoa'. Honen atzean da euskal nortasuna. Erran daiteke horrela Euskal Herriko lehen historigilea dela. Lehenago hau bezain omen handi-koak baziren, Garibai bezala, baina hau kantabrismoan kokatzen da eta bere eremua Gaztela da. Oihenartek euskal jendea hartzen du.

Hirugarren denbora Iraultza- ren denborakoa da. 'Neoforalismoa' sortu zen 1780tik 1790a arte. Hiru idazle handi badira: Bela zuberotarra, Sanadon Paben irakasle zena, sortzez Normandia-koa, benetinaoa, apezpiku izan zena Iraultza garaian eta Polvel. Hau Brive-koa zen, abokatu hona etorria. Nafarroako eskubide juridiko eta historikoen inguruan aritu ziren, hauek erreberitu nahiz Frantziako Koroak murriztuak zituelako.

EGUNKARIA.— Analisi kritikoa egin duzula dio zure lanaren tituluak.

GOIENETXE.— Erakutsi dut norentzat idatzi zuten. 'Herri' kontzepturik ez zen oraindik. Idazkiak orduko nobleziarentzat eginak dira. Honen inguruko mugimendua, bereziki Nafarroa Beherean ikertzen dut.

EGUNKARIA.— XIX. mendea aro berria daiteke eta berdin 'abertzaletasun' baten sorkuntza?

GOIENETXE.— Mende honetaz dut tesiaren erdia. Oihenart ezik egia da ez dela hainbat historiografia handirik. Uste dut historio-

grafia baten egiteko behar direla arabarako erakundeak edo instituzioak, 'azpiegitura' bat. Europako beste eskualdeetan historiografia egiten zen gorte edo monastegi edo unibertsitate batean. Hemen ez da horrelakorik izan. Azpimarratu behar da produktioa egiten dela behar diren erakundeekin. Orduan XIX. mendea da egiazki historiografia hori azaltzen 52 idazlerekin. Ez dira denak euskaldunak. Baiona da zentroa. Haritoki edo Duvoisin euskaldunak dira. Labrousse edo Bernadou ez. Honek 'Zazpiak Bat' idatzi zuen.

Elizari esker da sortzen historiografia hori. Arrazoi lekua edo instituzioa eskaintzen duelako, bereziki 1870etik goiti. Jakina orduan dela Errepublika sartzen. Historia orduko debate politikoaren inguruan egin zen. Leon XIII aita santuak giza zientziak bultzatu zituen, Pio IX.aren alde- rantziz. Iparraldean bere ondorioak izan ziren. Izugarritzko lana egin du Elizak, bazuen estrategia, metodologia, azpiegitura eta aldizkariak. Beste tokia Baionako Hiria eta honen estrategia da, Bernadou edo Hiriart handiekin.

EGUNKARIA.— Kanpoko historialarien eragina handia zen?

GOIENETXE.— Bai. Kanpotik bultzatutako mugimendua da, haizea kanpotik heldu da! Paris-eko estatuak ere izan du bere eragina. Hemen historia sortzaile guti da. Xaho handia da baina kanpoko moden eragina du. Kanpoko modeloak ditugu hemen aplikatu.

SOSLAIA

Euskal historiaren ikertzaile amorratua

Manex Goienetxe azken urte hauetan Euskal Herriko historiaren ikertzaile sendo gisa agertzen da. Irakasle ofizioan dabil aspaldian Ezterenzubir, Nafarroa Beherean sortu zena. Luzaz Seaskako idazkari izan zena, 70eko hamarkadan, Xalbador Ikastegiko zuzendari da gaur, historia irakasle bertan eta Baionako Fakultatean, Deug, Lizentzia eta Capes sailetan. Liburu ohargarrien egilea da. Duela 20 urte argitaratu zituen 'Histoire de la colonisation française en Pays Basque' eta 'Pays Basque nord, un peuple colonisé'. Horrek etsai asko sortu zizkion eta postu publikoetarik baztertu egin zuten. 'Lapurdi historian' eta bi 'Historia gida' Baionaz eta Euskal Herriaz argitaratu ditu. Unibertsitatean maîtrise-rako Uztaritzeko Herri Biltzarren ibilera aztertu zuen eta tesi bat egin zuen Nafarroa Behereko Foru modernoaz. Eusko Ikaskuntzarekin Garat anaiez egin zuen lan bat iaz.